Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

IRUNGO 2026 - 2036 KIROL-EKIPAMENDUEN PLANAREN KONTRATAZIOA

-BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA-

CONTRATACIÓN DEL PLAN DE EQUIPAMIENTOS DEPORTIVOS DE IRUN 2026 - 2036

- PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS -

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	KULTURA, HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA KIROLA / CULTURA, EDUCACIÓN, JUVENTUD Y DEPORTES
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2025ZAUN0110

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea da Irungo Kirol Ekipamenduen Plana egitea, agiri honetan adierazitako edukiaren arabera.

Planak 10 urteko iraupena izan beharko du, eta, kirol-azpiegiturei dagokienez, egungo eta etorkizuneko beharrak aztertuko dira, herritarren eta hiriko kirol-erakundeen eskaerei erantzun ahal izateko.

2.- AURREKARIAK.

Irungo Kirol Ekipamenduen Plana definitzerakoan, kontuan hartu beharko dira eremu horretan dagoeneko egindako lanak, bai eta dokumentua idaztean zeharka garrantzia izan dezaketen beste udal-plan batzuk ere.

Alde horretatik, nabarmentzekoa da 2023ko kirol-ekipamenduen analisi- eta diagnostiko-azterlana.

1.- OBJETO DEL CONTRATO.

Es objeto del contrato la elaboración del Plan de Equipamientos Deportivos de Irun, conforme al contenido señalado en este pliego.

El plan deberá tener un horizonte temporal de 10 años, analizando, a nivel de infraestructuras deportivas, las necesidades presentes y futuras que permitan responder a las demandas de la ciudadanía y de las entidades deportivas de la ciudad.

2.- ANTECEDENTES.

A la hora de definir el Plan de Equipamientos Deportivos de Irun, se deberán de tener en cuenta los trabajos ya realizados en este ámbito, así como otros planes municipales que de manera transversal puedan tener relevancia en la redacción del documento.

En este sentido cabe destacar el Estudio de análisis y diagnóstico de equipamientos deportivos del año 2023.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador Balioztapen kodea/Código de verificación: FXEZ-BWMZ-9MFI-NXQ7
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica Javier Echepare Robles RESPONSABLE ACTIVIDADES DEPORTIVAS (10/12/2025 15:06 CET)

3.- EGIN BEHARREKO LANAK.

Kirol Ekipamenduen Planak, gutxienez, honako atal hauek garatu beharko ditu:

3.1.- Diagnostiko

Atal hau kirol ekipamenduen plana diseinatzeko abiapuntua izango da eta, gutxienez, honako puntu hauek izango ditu:

- Egungo kirol-instalazioen azterketa.
- Irungo biztanleriaren azterketa demografikoa eta sozioekonomikoa
- Biztanleen kirol-ohiturak aztertzea. Tokiko biztanleen kirol-ohiturei buruzko informazioa lortzea.
- Indarrean dauden eta aurreikusita dauden hirigintza-planetan kirol-erabilerarako dagoen lurzoruaren analisia.

3.2.- Eskariaren azterketa

Atal hau baliagarria izango da hiriak kirol-ekipamenduen arloan dituen egungo eta etorkizuneko beharrak definitzeko. Gutxienez, honako hauek jaso beharko dira:

A) Instalazioen egungo eskaria:

- Herritarren eta beste elkarte batzuen eskaria.
- Udaleko kirol-instalazioetako abonatuen eskaria.
- Kirol-erakundeen eskaria.

3.- TRABAJOS A REALIZAR.

El Plan de Equipamientos deportivos deberá desarrollar, como mínimo, los siguientes apartados:

3.1.- Diagnóstico

Este apartado será el punto de partida para el diseño del plan de equipamientos deportivos. Este apartado constará, al menos, de los siguientes puntos:

- Análisis de las instalaciones deportivas actuales.
- Análisis demográfico y socioeconómico de la población de Irun.
- Análisis de los hábitos deportivos de la población. Obtención de información relativa a los hábitos deportivos de la población local.
- Análisis del suelo de uso deportivo existente en los planes urbanísticos vigentes y previstos.

3.2.- Análisis de la demanda

Este apartado servirá para definir las necesidades actuales y futuras de la ciudad en el ámbito de los equipamientos deportivos. Deberá constar de al menos:

A) Demanda actual de instalaciones:

- Demanda de la ciudadanía y otras asociaciones.
- Demanda de las personas abonadas a las instalaciones deportivas municipales.
- Demanda de entidades deportivas.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador Balioztapen kodea/Código de verificación: FXEZ-BWMZ-9MFI-NXQ7
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica Javier Echepare Robles RESPONSABLE ACTIVIDADES DEPORTIVAS (10/12/2025 15:06 CET)

- Lehiakide pribatu zein publikoak identifikatzea.

- Aukerak eta mehatxuak hautematea eta ebaluatzea.

B) Plana egiteko ezarritako epean etorkizunean instalaziorik beharko den:

- Egin beharreko jarduera motak, haien ezaugarriak, xede-publikoa eta erabiltzaile potentzialen kopurua definituz.

- Jarduera horiek egiteko beharrezkoak diren instalazioen tipologia eta ezaugarri orokorrak.

- Instalazio horiei aplikatu beharreko araudia.

- Identificación de la competencia público/privada

- Detección y evaluación de oportunidades y amenazas.

B) Demanda futura de instalaciones en el periodo señalado para la elaboración del plan:

- Tipos de actividades a realizar definiendo las características de las mismas, público objetivo y, número de usuarios/as potenciales.

- Tipología y características generales de las instalaciones necesarias para dar cabida a dichas actividades.

- Normativas aplicables a dichas instalaciones.

3.3.- Proposamena / jarduketa plana

Aurreko atal guztiak kontuan hartuta, planak jaso beharko du:

- 2026-2036 aldirako ekipamenduen proposamen arrazoitua.

- Planaren bideragarritasuna bermatzen duten kudeaketa-eredu posibleak. Planteatutako aukeren abantailak eta eragozpenak zehaztuko dira.

- Proposamena hiriaren hirigintza-garapenaren arabera egokitzea.

- Ingurumen-jasangarritasuneko irizpideak.

3.4.-Bideragarritasun ekonomikoa

Zuzeneko edo zeharkako kudeaketako aukeren bideragarritasun ekonomikoa aztertu beharko da.

3.3.- Propuesta / plan de actuación

De resultas de los anteriores apartados, el plan deberá complemplar:

- Propuesta razonada de equipamientos para el periodo 2026-2036.

- Modelos de gestión posibles que garanticen la viabilidad del plan. Detallando las ventajas e inconvenientes de las alternativas planteadas.

- Encaje de la propuesta en base al desarrollo urbanístico de la ciudad.

- Criterios de sostenibilidad medioambiental.

3.4.- Viabilidad económica

Deberá analizarse la viabilidad económica de las diferentes alternativas de gestión directa o indirecta.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en:
http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: FXEZ-BWMZ-9MFI-NXQ7
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Javier Echepare Robles RESPONSABLE ACTIVIDADES DEPORTIVAS (10/12/2025 15:06 CET)

Aurreko atal guztiak bideragarritasun ekonomikoan islatu behar dira. Kudeaketa-ereduan jasotako aukerak kontuan hartuta, bideragarritasunak aukera horiek eta emaitza ekonomikoetan duten eragina ere jaso beharko ditu.

Todos los apartados deberán tener su reflejo en la viabilidad económica. Teniendo en cuenta las diferentes alternativas recogidas en el modelo de gestión, la viabilidad también deberá recoger dichas alternativas y su impacto en los resultados económicos.

Garrantzitsua izango da, halaber, kudeaketaren optimizazioa jasotzea aurreko atal guztietan, bideragarritasun ekonomikoa ahalik eta eraginkorrena izan dadin, eta horrek epe luzerako autofinantzaketa-estrategia bat barne har lezake.

Será importante también recoger la optimización de la gestión en todos los apartados anteriores, para que la viabilidad económica sea lo más eficiente, y esto podría incluir una estrategia de autofinanciación a largo plazo.

Plan horretan jaso beharko da, halaber, Irungo Udalaren aurrekontu bateratuaren aurrekontu-egonkortasunean eta finantza-iraunkortasunean egoera desberdinek izango duten eragina.

Este Plan también deberá recoger el impacto que supondrán los distintos escenarios en la estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera del presupuesto consolidado del Ayuntamiento de Irun.

3.5.- Gauzatze-plana. Kronograma

Garapen-faseak azaldu beharko dira, egindako proposamenak jasotzen duen ekipamendu-helburua lortu arte, bai eta aurreikusitako kronograma ere.

3.5.- Plan de ejecución. Cronograma

Se deberán describir las fases de desarrollo hasta alcanzar el objetivo de equipamientos que recoja la propuesta realizada, así como un cronograma de actuación estimado.

4.- ENPRESA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK.

4.1.- Lantaldearen GUTXIENEKO osaera

- Lizentziadun edo Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradua duen bana.
- Arkitekturako edo Ingenieritza zibilean lizentzia edo gradua duen bana.
- Ekonomian/empresagintzan eta/edo EAZ lizentziatu/ gradua duen bana.

4.- OBLIGACIONES DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA.

4.1.- Composición MINIMA del equipo de trabajo

- 1 licenciado/a, o, Grado en Ciencias de la Actividad Física y Deporte.
- 1 licenciado/a, o, Grado en Arquitectura. Ingeniería Civil.
- 1 licenciado/a, o, Grado en Economía/Empresariales y/o ADE.

4.2.-Lantaldearen mantentzea

Kontratua gauzatu bitartean sortutako

4.2.-Mantenimiento del equipo de trabajo

Si por causas sobrevenidas durante la ejecución del

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: FXEZ-BWMZ-9MFI-NXQ7
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Javier Echepare Robles RESPONSABLE ACTIVIDADES DEPORTIVAS (10/12/2025 15:06 CET)

arrazoiengatik enpresa esleipendunak lantaldean aldaketak egin behar baditu, aldaketa horiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Justifikazio idatzia, xehatua eta nahikoa, aldaketa azalduko duena, eragindako taldeko kideen identifikazioarekin.

- Egin nahi den ordezkapen-proposamena, taldean sartu beharreko langileen prestakuntza, ezagutza eta esperientziari buruzko datuak emanez. Langile horiek, gutxienez, ordeztutako langileen gaitasun berberak izan beharko dituzte.

Zerbitzuan diharduten langileak aldez aurretik jakinarazi gabe eta aurretik ezarritakora egokitu gabe ordezkatzea kontratuaren ez betetze larritzat hartuko da.

4.3.- Udalarekiko koordinazioa

Taldeko pertsonen arteko bat kontratuaren arduraduna izango da, kontratua betetzearekin erlazionatutako izapide orori dagokionez Kirol Zerbitzuarekin bitartekari lanak egingo ditu.

Sakelako telefono bat eta helbide elektroniko propio bat izan beharko ditu, lanorduetan berarekin harremanetan jarri beharko balitz ere.

4.4.- Planaren aurkeztea

Kontratuaren xede den Plana euskarri digitalean eta elebidunean (euskara-gaztelania) entregatuko da.

Plana Irungo Udalarena bakarrik izango da.

4.5.- Hizkuntz baldintzak

Esleipendunak baldintza hauek betez eman behar

contrato, la adjudicataria precisara realizar cambios en el equipo de trabajo, dichos cambios requerirán, en todo caso, el cumplimiento de las condiciones siguientes:

- Justificación escrita, detallada y suficiente, explicando el cambio con identificación de los/las miembros del equipo afectados/as.

- Propuesta de sustitución que se pretende, aportando datos de formación, conocimientos y experiencia del personal a incorporar al equipo, el cual deberá tener al menos, las mismas capacidades que el personal sustituido.

La sustitución del personal destinado al servicio sin previo aviso y sin ajustarse a lo anteriormente establecido se considerará incumplimiento grave del contrato.

4.3.- Coordinación con el Ayuntamiento

Una de las personas del equipo será el/la responsable del proyecto, que servirá de interlocutor con el Servicio de Deportes para todos los trámites relacionados con la ejecución del mismo.

Asimismo, deberá disponer de un teléfono móvil y una dirección de correo electrónico propio donde poder ponerse en contacto en horario laboral.

4.4.- Presentación del Plan

El Plan objeto del contrato se entregará en soporte digital y bilingüe (euskera-castellano).

El Plan será de exclusiva propiedad del Ayuntamiento de Irun.

4.5.- Condiciones lingüísticas

El adjudicatario debe prestar el servicio cumpliendo

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: FXEZ-BWMZ-9MFI-NXQ7
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Javier Echepare Robles RESPONSABLE ACTIVIDADES DEPORTIVAS (10/12/2025 15:06 CET)

du zerbitzua:

Herritarrek edozein hizkuntz ofizial erabiltzeko eskubidea dute, beraz, beraiekiko harremanak beraiek hautatutako hizkuntzan izango dira; ezingo zaie eskatu hizkuntza ofizial bat edo bestea erabil dezaten. Komunikazioan kontratu honen menpeko langileak hasten badira euskara erabiliko dute eta herritarrak erabakiko du euskaraz ala gaztelaniaz aritu. Publiko elebidun batentzako komunikazioak lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz egingo dira.

Ahoz, audioz edo ikus-entzunezkoen bitartez ematen diren mezuak eta komunikazioak euskaraz, edo elebietan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez (lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz). Kontratua dela eta egindako aurkezpenak, ekitaldi publikoak, prentsaurrekoak eta antzekoak modu berean egingo dira.

Herritarrei oro har zuzendutako idatzizko komunikazioa (informazio kanpainak, prentsa oharrak, publizitatea…) eta partehartzaileei zuzendutakoa (dokumentazioa, saioen egutegia, ordutegiak, argibideak…) euskaraz edo bi hizkuntzetan egingo da euskarari lehentasuna emanez (euskarazkoa goian, ezkerraldean, handiago edo letra lodiz; eta gaztelaniazkoa behean, eskuinean, txikiago edo letra arruntaz).

Zerbitzua ematen duten enplegatuek testua edo edozein informazio daraman identifikaziorik (txartela, plaka…) edota uniformerik balute, testu hori euskaraz ala elebietan egongo da.

Plegu honetako 3.2 klausulan (eskariaren azterketa) beharrezkoak liratekeen elkarrizketak, inkestak, lan batzordeak… euskaraz/elebietan burutuko dira, euskarari lehentasuna emanez. Izen ematerik balitz (lan taldeak…), partaide bakoitzari zein hizkuntza ofizialetan ematea nahi duen galdetuko zaio, eta aukera hori bermatzeko behar adina talde sortuko dira.

las siguientes condiciones:

Los ciudadanos y ciudadanas tienen derecho a usar cualquiera de las dos lenguas oficiales, por tanto las relaciones con los mismos serán en el idioma que ellos elijan, sin poder solicitarles que utilicen una u otra lengua. Si la comunicación la inicia el personal adscrito al contrato inicialmente usarán el euskera y será el usuario/a quien decida comunicarse en euskera o en castellano. Las comunicaciones dirigidas a un público bilingüe se realizarán primero en euskera y después en castellano.

Los mensajes y comunicaciones orales, de audio o audiovisuales se realizarán en euskera, o en bilingüe dando prioridad al euskera (primero en euskera y después en castellano). Las presentaciones, actos públicos, ruedas de prensa y similares relacionadas con el contrato se realizarán de la misma manera.

La comunicación escrita destinada al público en general (campañas informativas, notas de prensa, publicidad…) y la destinada a las personas participantes (documentación, calendario de sesiones, horarios, instrucciones…) se deberá realizar en euskera o en bilingüe dando prioridad al euskera (el euskera arriba o a la izquierda o en negrita; y el castellano abajo, a la derecha, más pequeño o no negrita).

Si los empleados que prestan el servicio llevaran cualquier identificación (tarjeta, placa…) y/o uniformes que incluyan texto o cualquier información, esta estará en euskera o en bilingüe.

Las entrevistas, encuestas, comisiones de trabajo… que fueran necesarias en la cláusula 3.2 de este pliego (análisis de la demanda) se deben desarrollar en euskera/bilingüe dando prioridad al euskera. Si hubiera inscripción (grupos de trabajo…) se preguntará a cada participante en qué idioma oficial desea que se imparta y se crearán los grupos suficientes para garantizar dicha opción.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: FXEZ-BWMZ-9MFI-NXQ7
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Javier Echepare Robles RESPONSABLE ACTIVIDADES DEPORTIVAS (10/12/2025 15:06 CET)

Saioak, bilerak, jarduerak… burutzeko material eta gainerako baliabideak elebietan egongo dira edo euskara hutsez, jarduera hizkuntz horretan burutzen bada.	Los materiales y demás recursos a emplear para la realización de las sesiones, reuniones, actividades… deberán estar en bilingüe o solo en euskera en el caso de que se lleve a cabo en este idioma.
Kontratu hau dela eta sortzen diren publizitate kanpaina, eslogan eta izendapen berriek (zerbitzuak, guneak… euskaraz edo elebietan (euskara lehenetsiz) beharko dute. Euskarazko marka, lelo eta esloganak hizkuntz horretan bertan sortuko dira, gaztelaniaren itzulpen hutsa ekidinez.	Las campañas publicitarias, eslóganes y nuevas denominaciones (servicios, espacios…) generadas por este contrato deberán realizarse en euskera o en bilingüe (priorizando el euskera). Las marcas, lemas y eslóganes en euskera se crearán en esa misma lengua, sin que sean una mera traducción de la versión en castellano.
Enpresa esleipendunak informazio eta ekitaldietan Irungo udalak onartutako kaletegi eta tokiko toponimia ofizialak erabiliko ditu. Irundik kanpoko gainerako leku izenetan modu ofiziala erabiliko da. Zalantza edo eztabaida kasuan Euskara Arloak emango du txostena.	La empresa adjudicataria utilizará para la información y actividades el callejero y la toponimia local oficiales aprobados por el Ayuntamiento de Irun. Para el resto de nombres de lugar de fuera de Irun se usará la denominación oficial. En caso de duda o discrepancia el Área de Euskera informará al respecto.
Enpresak udal arduradunekin aritzeko jartzen dituen solaskideek horretarako ahoz zein idatzizko euskarazko maila nahikoa izan beharko dute.	Los interlocutores de la empresa con los responsables municipales del contrato deben tener conocimiento de euskera suficiente para llevar a cabo esta interlocución, tanto a nivel oral como escrito, en esta lengua.
Kontratatzaile eta kontratistaren arteko komunikazio idatzien euskarriak (eguneroko parteak, hileroko txostenak…) euskaraz edo elebietan lan egiteko prestatuak egongo dira.	Los soportes para las comunicaciones escritas entre el contratador-contratista deberán estar preparados para trabajar en euskera o en bilingüe.
Kontratuari lotuta, udalari entregatu behar zaizkion dokumentu ez publiko edo barneko guztiak, hala nola fakturak, txostenak eta, kontratazio honen helburu den Plan bera ere euskaraz edo elebietan idatzita egongo dira, euskarari lehentasuna emanez (euskarazkoa goian, ezkerraldean, handiagoa edo letra lodiz; eta gaztelaniazkoa behean, eskuinean, txikiago edo letra arruntaz).	Todos los documentos no públicos o internos relativos al contrato, como facturas, informes, así como el Plan objeto de esta contratación, que deban entregarse al Ayuntamiento se deberán realizar en euskera o en bilingüe dando prioridad al euskera (el euskera arriba o a la izquierda o en negrita; y el castellano abajo, a la derecha, más pequeño o no negrita).
Herritarren hizkuntza-eskubideak eta euskararen	Para garantizar los derechos lingüísticos de los

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador Balioztapen kodea/Código de verificación: FXEZ-BWMZ-9MFI-NXQ7
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica Javier Echepare Robles RESPONSABLE ACTIVIDADES DEPORTIVAS (10/12/2025 15:06 CET)

eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren erregulazioa bermatzeko, beharrezko euskara mailak hau da: proiektuaren arduradunarentzat eta inkestatzaileentzat, halakorik balego, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko **C1** maila. Agiri ofizial bidez egiaztatuko dira.

ciudadanos y el cumplimiento de la regulación de oficialidad lingüística del euskera y el castellano, el nivel de euskera requerido es el **C1** del Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas, tanto para el/la responsable del proyecto como para los/as encuestadores/as, si los hubiera. Se deberán acreditar con los títulos oficiales correspondientes.

Hizkuntz Baldintza klausula honek klausula administratibo berezien pleguko (KABP) KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK atalean hizkuntza ofizialtasun bikoitzari buruz xedatutakoa osatzen du. Esleipendunak beti ere Irungo Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauei buruzko udal Ordenantza bete beharko du, eta baita euskararen erabilera Normalizatzeko Plana ere. Kontratuaren arduradunari dagokio hizkuntz baldintza hauek kontrola eta jarraipena.

Esta cláusula de condiciones lingüísticas complementa lo establecido respecto a la doble oficialidad lingüística en la relativa a los DERECHOS Y OBLIGACIONES DEL CONTRATISTA del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares (PCAP). El adjudicatario deberá cumplir la Ordenanza municipal sobre normas para la normalización del uso del euskera en el Ayuntamiento y municipio de Irun, así como el Plan de Normalización del uso del euskera. Corresponde al responsable del contrato el control y seguimiento de estas condiciones lingüísticas.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en:
http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: FXEZ-BWMZ-9MFI-NXQ7

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Javier Echepare Robles RESPONSABLE ACTIVIDADES DEPORTIVAS (10/12/2025 15:06 CET)